

Sekulako jendetza San Martinen

Lehenengo unetik argi zegoen aurtengo San Martin azoka ez zela izango beste urte-etakoa zen bezalakoa. Laugarren edizioa betetzen zuen eta inoiz baino arrakasta handiagoa izan zuen.

Goizeko lehen orduetatik ikusten zen jada, eguraldia be laguntzeko asmotan zegoela, eta horrela jendea oso goiz hasi zen plazatik agertzen. Honenbestez 11.etarako enparantza beterik zegoen eta pare bat ordu beranduago sekulako jendetza zegoen, gehiegi zeozer lasai ikus-teko.

Eguna argitu baino lehen agertu ziren Ermuko



Giro ezinhobea azokakoa.

plazan azokaren antolatzaileak. Ez zen batere malka egunean zehar egin behar zuten lana, baina denak prest eta animaturik zeuden.

Goizetik jotake lanean

Goiz goizetik hasi ziren baserritarrak etortzen, nahiz eta oraindik bakoitzaren tokia ziurtatu barik egon; halere mundu guztiaren ahaleginaz azkenean dena zegoen prest inguruko saltzaileak beren postuak ipintzeko. Orokorrean baserritarrak pozik zeuden antolaketarekin batzuek postuak eta azoka lekua txikiegiak zirela aipatzen bazuten be, bai beren produktuak erakusteko, bai hainbeste jende lasai ikusi eta erosteko.

MIGUEL Harategia



Probaleku, 3
☎ (943) 17 05 63 Harategia
☎ (943) 17 29 03 Etxea

48260 -ERMUA
(Bizkaia)

Kopi - Fax Kopistegia, Papertegia

Torrekua, z/g.48260
Tfnoa. eta Faxes: (943) 17 42 89

ERMUA

GOZOTEGIA DASTATEGIA

Delicias

- Berton egiten dugu
- Etxera eramaten dizugu

Valdespina, 9
Zubiaurre, 2
Tfnoa: 17 15 67

Postu guztiak ondo
restatu ondoren ekitaldi-
ko muntatu zen taberna-
pasatu zen beharra egi-
ko gogoia, bertan lan
andia egin behar baitzen
gun osoan. Zeregin ho-
etan bildutako hainbeste
enderen artean bereziki
alogileak aipatu behar di-
a, baserritar jantziekin jo-
ake ari izan ziren Ermuko
ndreak. Honez gain, txo-
izoak egosten, ogia moz-
en eta noski, edariak zer-
titzatzen ibili zen jende
n, isko eta asko. Baita be-
eren euskara praktikatu
rik iahi zuen AEK-ko ikasle
z-gari zebilen lanean, az-
kenean eta denen artean
n-tabernak protagonismo
en handia hartzea lortu zute-
ko-
larik.

Piskat berandu baina
seguru azokaren beste
protagonistetako bat ageri
zen, hau da, Txerria, eta
letra handiz izendatuta ze-
ren ez zen batere txikia
gure animalitxoa, ez hori-
xe. Arazo bat baino gehia-
go izan zen kamioitik ate-



Hainbeste janari ikusiz, sabela lasaitu behar.

**Pixkat berandu
baina seguru azo-
karen beste pro-
tagonistetako bat
ageri zen, hau da,
Txerria.**

ra eta kutxan sartzeko.
Gero plazaren erdian egon
zen, txintxo txintxo, ume-
en eta ez hain umeen por-
taera aguantatzen.

Egun pasa atsegina

Azokaren oinarria, hau
da, beren produktuak era-
kustera zetozen baserrita-

rek "egun pasa" atsegina
pasatu ei zuten, iazkoare-
kin gonbaratuta jende
gehiago zebilelako. Hala
ere, agian gutxiago salt-
zen zela aitatzen zuten, bi-
zi dugun krisi honek jen-
dearen poltsikoak hustu
baititu.

Erakusle gehienak po-



Zubiaurre, 12
Tfnoa. 17 01 59

ERMUA

ZABALA
BURDINDENDA

ETXE HORNIDURA / BRIKOLAJEA
OPARIAK / ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

optika
itze

Probaleku, 7
Tfnoa. 17 46 71

zik zeuden giro eta antolakuntzarekin eta datorren urtean etortzeko desiratzaren. Antolaketa aldetik kexa gutxi izan ziren; horietako bat Otzone baserriko Itziarrek aitatzan ziguna, "eitten dabe gauza bat txarra niretzako, jendie etortzen da bastante goixa eroatera, ta ordun esaten doutzau ezin geinkela saldu arik eta juraue pasau arte".

rentzat, "saria irabaztea zaila da, ze badirudi txantxullo asko dagoela, hortik erosi eta gero saldu ortutik ekarrita moduan. Ziur nago egiten dela, nik ezagutzen baitut egiten duen jendea. Berrizko batek ez dauka orturik eta irabazi du sariren bat eta azkenean moskeatu egiten zara."

Beste baserritar batzuek, ordea, gehiago azpi-

"Saria irabaztea zaila da, ze badirudi txantxullo asko dagoela, hortik erosi eta gero saldu ortutik ekarrita moduan."

Bestalde, baserritar ugari saltzeaz gain sail bakoitzaren (fruta ta barazkiak, sagardoa, ...) saria irabazteko itxaropena zuen, baten baten ustez batzuek oso garbi ez bazuten jokatzan be, horrela Ermuko Jose Lonbide-

marratzen zuten azokaren hobekuntza, Mañe Azpiko Luis Mari Osaren moduan, "Azoka honek asko irabazi du, laugarren urtia da ta merezi dau jendiek oso erantzun ona emon dau".



Janari ugari eta goxoa ikusitakoa.

Giro jatorra nagusi

Guzti honekin batera, eta azoka eta bere bisitariak animatuz, postuetatik trikitilariak ibili ziren, ge-

ro Txindurri taldeko dantzariak erakustaldi bat eman zuten, eta bazkaldia aurretik Arkaitz Ugartetxea eta Unai Agirre bert-

OPTICA



J. CASADO

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57 ERMUA

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antijuak
Eguzkirako Antijuak



HARATEGIA

ROSA MARI

Baserriko okela
Etxeko odoloste eta txorizua

Zubiaurre, 22

Tfnoa. 17 06 80

URDATEGIA

LIBURUDENDA
XIRIPOT



Zubiaurre, 15 - Tfno.: 17 25 12

ERMUA



Jendea animatzeko, bertsoak bazkaldu aurretik.

solariek oholtza gainean beren trebetasuna erakutsi zuten.

Azkenik, eta azokan parte hartu zutenek bazkaria burutu ondoren lanik astunena zetorren, dena

desmuntatu, garbitu, eta abar. Baina merkatuaren emaitzak ikusi eta gero pena merezi izan zuela us-te zuten eta pozik zeuden. Hori bai, lehenago sari banaketa egin zen, sail ez-

berdinetan, eta baita be txarriaren zoxketa. Aurtengo arrakasta handia ikusita baten bat dagoeneko pentsatzen egongo da gutxiago geratzen dela datorren azarorako.


Iosu Etxaniz
eta
Eli Txurruka

EKINTZA

ESKOLAKO MATERIALEA

FOTOKOPIAK

FAX PUBLIKOA




Goienkale, z/g
17 20 08

TXALAPARTA TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

HARATEGIA - URDAITEGIA
P. ARAMBERRI



HARATEGIA

- * Bertokō txahala
- * Idi txuleta
- * Berton hildakoa

URDAITEGIA

- * Urdai egosia
- * Etxeko txorizua
- * Txistorra

Kantabria, 1

Tfnoa: 17 64 65

AGURRA

Euskarari "ABIXADIA" eman guran

Alper" antidotoak eragindako urte beteko loaldia jasan ostean, hemen duzu irakurle Ermuan berpiztu den azken "Euskal Birusa": DROGETENITTURRI "anka-gorria".

Pare bat urte igaro zuen DROGETENITTURRI zarrak Ermuko euskaldunak astintzen, baina, gure "adole-bakuak" eta diru eskasiak sortutako "bakuak" alperrik-galdu zuen bai edukinez, bai ikuspegiz, marginal samarra eta "aida ta ixo" ibili zen "Euskal Birus" polit hura. Izan be, antxixiketan beti dabilena, antzian behin jausi eitten da. Hala ere, arrapatakia ez da ona gauzak ondo ateratzeko.

DROGETENITTURRI berri honen helburua, zaharrak zuen zabalkunde urriaren arazoa gaintitzea eta esparru zabalagoetara iristea da, euskaldun, ia euskaldun eta gura duten Ermuar guztien etxeetara ailegatzeara hain zuzen ere. Sekula euskaraz irakurri ez duen euskaldunentzat, eta ez betiko euskaltzaleentzat DROGETENITTURRI on, aldi baterako eta erakar-garri bat egitea izango da Birusaren betebeharra. Eta horretarako herri-mailako informazio-arloa aberastu gura da, herritarren integrazioa bultzatuz, Ermuko euskaria zainduz, batua bultzatuz...

* Bai, Juanita bai, lasai egon zaitte, ze, Ermuko euskaria be zainduko dogu eta. Portzierto Anastasio, hi



Eguneroko jardunak emandako astartuak edo eskarmentuak beste "birus" berri bat sortu du, amateurismoa eta "aienekia" baztertuz, enpresa antzeko egitura sakonaz funtzionatu gura duena. Kolaboratzaileen lana garrantzitsua izan arren, DROGETENITTURRI berri hau ez da beraz, lagunarteko edota militantismoz bakarrik egindako "BIRUSA" izango. Ermuko kazetari euskaldun guztion eskuetan laga gura dugu erronka hau: lanak publikatzeko, esperientzia bat izateko, kurrikuluna aberazteko, enfin "primeran" pasatzeko.

be, ez hadi larritxu, hire trasto zahar horrek zelabaitz saltzeko aukeria izango dittuk eta.

Edozelan be, eta ahaztu barik DROGETENITTURRI kaleratzeko publizitatie dala finantziabiderik garrantzitsuena, beste herrixetan bezela, erakunde publikuek Udaletxiak, Diputaziñuak, Gobernuak harrera ona eingo dotselakoan gagoz. Izan be, esatiak ez dau balio, eittiak baino.

DROGETENITTURRIzaleok baduzue zertan aritu. On bekizue.

Iñaki Arregi